

INGURUMENA DEFENDATZEA ENPLEGUA DEFENDATZEA DA

Delegatuak langileen lan egoeraren berri izan behar duten bezala, enpresaren ingurumen egoerari ere adi egon behar dira. Horretarako ezinbestekoa da inizatiba hartzea eta arazoak agertu arte zain ez egotea, alegia, garrantzitsua da aurretik enpresaren ingurumen egoeraren informazioa exijitzea eta edukitzea. Enpresei indarrean dagoen ingurumen legedia betetzeko exijitu behar diegu. Baina informatuta egotea ez da hain erraza, enpresak trabak jarri diezazkigu informazioa ematerako garaian, nahiz eta horretara behartuta dauden. Hiritar orok dauka ingurumen informazioa izateko eskubidea, eta lan arloan ere eskubide hori badaukagu.

Enpresetan dauden delegatuek enpresaren ekoizpen jarduerarekin erlazionatutako ingurumen informazioa izateko eskubidea dute. Informazio, kontsulta eta konpetentzien inguruko Langileen Estatutuko 64. artikulua arabera. Enpresa bakoitzeko ingurumen informazioa izatea ezinbestekoa da ingurumen arloan enpresaren jarraipena egiteko. Ezinbestekoa da pausu hau ematea garapen eta ekoizpen ereduaren aldaketaren eta ekoizpen garbiago baten alde lan egiteko, orain sekula baino beharrezkoagoa da aldaketa.



Ingurumen Baimen Bateratua

Legeak sektore konkretu batzuetako enpresak, sektore kutsatzaileenetakoak, Ingurumen Baimen Bateratua (IBB) izatera behartzen ditu. Baimen honek zehazten ditu enpresaren isurketa eta emisio mugak, eta hondakinek izan beharreko gestioa. Batzuetan hobekuntza teknikoak ere exijitzen dira. Kasu konkretuetan konpetentzia hau duten Eusko Jaurlaritzako edo Nafarroako Gobernuko ingurumen sailek IBB baldintzatua

ematen dute, horrela enpresek lanean jarraitu dezakete baina eskatu zaizkion hobekuntza tekniko edo estrukturalak egin behar dituzte ezarritako epean. Eskatutako neurri hauek epe horretan betetzen badira behin betiko IBBa ematen zaio enpresari, baldintzak betetzen ez direnean hasten dira arazoak. Enpresak Ingurumen Baimen Bateratua galtzen du eta ondorioz udaletxeak jardura baimena kentzen dio. Hau da, enpresaren jardura geldiarazi egiten da eta azkenik baldintzak betetzen ez baditu, enpresa ixten da. Honek lanpostuen galera suposatzen du, horregatik adierazten dugu enpresan ingurumena defendatzeak enplegua mantentzea esan nahi duela.

Hondakin Industrialen gestioa eta legez kontrako beste jardura batzuk

Ingurumenarekiko dugun ardura ekoizpen eta garapen eredura ere zabaltzen da, hortik dator hondakinen inguruan dugun kezka eta zehatzago, hondakin industrialen inguruan daukaguna. Gaur egun ingurumenarentzat arazo handiak dira hondakinen gehiegizko sorrera, hondakin arriskutsuen kontrol gabeko isurketak,... Eta nahiz eta hondakinen gestiorako legedia izan, ez da beti betetzen.

Enpresak derrigortuta daude beraien hondakinak baimendutako kudeatzaile baten bidez gestionatzera. Eta horrela izatea exijitu behar dugu, ingurumena denon ondarea baita, eta gainera enpresari zigor larriak jartzeko arriskua dago, eta horrek enpleguan ondorioak izan ditzake

Zigor administratiboak ezberdinak dira, isunetatik hasi eta enpresaren itxiera arte iritsi daitezke. Baina orain arte ingurumenaren babes penalaren ezaugarri nagusia bere erregulazio eskasa izan da. Ingurumenari kalte handiak egin ziezazkiekeen jardueretatik oso gutxi hartzen ziren delitutzat. Aurreikusitako zigorrak, bereziki oso eskasak ziren, eta horrek disuasio efektua kentzen zion zigorrari. Ingurumenaren aurkako eginiko jardura irregular askoz gehiago definitu dira delitu gisa

ELAko ingurumen ataletik langileak informatzen eta kontzientziatzen ari gara ingurumenaren defentsan inplikatu daitezen, azken finean, enpresan ingurumena defendatzea enplegua defendatu eta mantentzea baita.